

Fermin Erbiti Zabalza

KAZETARIA ♦



DANI BLANCO

Benetako partida, bi hilabete barrukoa

OSASUNAREN HAMAIAKAKO bakarra dakit buruz, oso aspaldikoa: bigarren eta hirugarren dibisioaren arteko joan-etorrietan zebilen garaikoa. Memoria apetatsuari orduko irudi bat eskatuz gero, Bosmediano ikusten dut. Zelai erdian baloia harturik, ezker hegaletik gora doa, ziztu bizian. Aitzina egin ahala, harmailetak orroaren oihartzuna handitzen doa, Ostibar ere area txikian sartu baita kanariarren erdiraketari buruz erantzuteko asmoz.

Aita eta anaiarekin Sadarren eginiko igande arratsalde urrun haiek puruen usainari daude loturik; arbitroaren aurkako oihuak ere gogoan dauzkat, bai eta norgehiagoka amaitu bezain laster tabernetan banatu ohi zuten *La goleada* berri paper mehea, arratsaldeko emaitza eta sailkapenekin.

Fermin Ezkurra zen Osasunako ordutegiko presidentea. Iruñeko Kutxako ardura-dun, kutxak berak jarria zuen postuan kluba erreskatatu ondotik, zorra kobratzeko berme hoberena zelakoan. Diputazioan Amadeo Marco erreketek zaharra zegoen, eta Uragua zen Nafarroako Kutxako burua, *Diario de Navarra*ko zuzendariaren anaia. Nafarroa arragoan kolore iluneko jauntxokeria nagusi, bistan denez.

Urteen joan-etorriak aldatu egin ditu elkarren arteko harreman estua duten hiru instituzioetako ardura-

dunen izenak: Sanz-Barcina Gobernuan (eta Caja Navarran), Izko-Artxanko Osasunan, Goñi kutxan. Izanetan aldaketa handirik ez dugu ezagutu, ez onerako behintzat. Ordutegiko jauntxokeriari aberats berriek dirua xahutzeko duten joera gehitu zaio, guztion kalterako. Momentuz, Kutxa pikutara joan da, Osasuna

bide beretik doa eta agintarien kudeaketa ekonomiko arduragabeak kili-kolo utzi du Nafarroaren bidegarritasuna.

Osasunako arduradunak erreskate eske joan zirelarik, Nafarroako Parlamentua bi zatitan banatu zen. Klubari hirurogei milioiko zorra pilatzen utzi dion UPN, sozialistak eta PP tratua berehala sinatzearen alde agertu ziren. Oposizioako taldeek, ordea, lehenbizi kontuak argitu behar zirela azpimarratu zuten.

Berriki jakin dugunez, hura argitzea zaila zen, dena kakaztuegi zegoelako. Gobernuak irabazi zuen bozketa, ordea, oso argigarria izan zen, maiatzeko partidaren gakoa islatzen baitu. UPN-PSN-PP

hirukoteak 26 parlamentario lortzen baditu, eginga dago gobernua. Bestela, abertzaleek eta Podemosek hartuko dute Diputazioaren jauregia. Esan beharrik ez dago: hori erabateko hondamendia litzateke batzuentzat; bestentzat, berriz, Nafarroa arragoa haizearen ibiltoki zabal, hesirik gabe bihurtzeko aukera. ■

Kutxa pikutara joan da, Osasuna bide beretik doa eta agintarien kudeaketa ekonomiko arduragabeak kili-kolo utzi du Nafarroaren bidegarritasuna

DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Kaleak eta gauak

GURE KALEAK izendatzeko plaken %10ak baino ez omen darama emakumezko baten izena. Ehuneko horren barnean omen daude, “inork ezagutzen dituen emakumezkoak”, abizenik gabe azaltzen diren “izen herrikoiak”, eta nola ez, santak, mojak eta Ama Birjinak.

Espazio publikoa hartzeko dugun beharraz barre egin izan digute maiz, histeriaz blai ari garela, gehiegikeria dela gure errekonozimendu antisia. Eta estatistikak gogoko ez baditut ere, gaurko datuak ez du erantzunik onartzen.

Era berean, Hernanin Andre Kalea berreskuratu dugu, ez gainera izerdi gutxi-

rekin. Ez dizkiot zorionak besterik eman nahi hainbeste urtean borrokan aritu den horri, eta bidean batu garen guztioi.

Baina kaleak ez ditugulako plaka batzuen bidez soilik gureak egingo, martxoaren 14an Hernaniko kaleak beste era batera hartzeko aukera ere izango dugu emakumeok. Izan ere, sagardotegi garai-ko gehiegikeria sexistek, baboseoak eta gainontzekoek adi entzun beharko dute, gurea dena berreskuratzen gatzela. Nazkatuta egoteaz gain, haserre borbor-ka izateaz gain, gurea denari izena jartzera baikato; eta jada, ez dugu baimenik eskatzen. ■